

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Gin jantzia

IZAN ERE, ba al da landarerik gabe egina den ezer? Gauza handirik ez, behintzat. Taxuzkorik bat bera ere ez! Egin kontu, edaten dugun ura, adibidez, landareen artelana, maisulana da. Ur guztia behin eta berriz, askotan, landareen baten barrutik igarota da. Zuztarretik, azaletik edo hostotik hartua eta lurrundua izan da. Hori da hori bahea, irazki naturala. Edan edan!

Landareekin egindako edarien artean bermuta zarrakatu berria dut, eta bere kinina aitzakia hartu. Haren edanean gin-tonica aipatu baita ere. Kininaren iturri kinoari heldu eta tiraka, beste landare ugariarekin bezala, urte guztiko ARGIAKO orri hau osa daiteke. Lasai, ez hartu mehatxutzat, ez dut honelako botika-droga baten bueltan luza eta luza urtetan aritzeko asmorik. Baina, aurrerabidearen bazterrean kinina utzi aurretik arrasto bat, aztarna bat utzi nahi dizut: kino zuhaitz ezagunena *Cinchona calisaya* da, Boliviako Calisaya mendikoa. Dena ezin egingo dizut nik, zeu ere saiatu...

Kininak tonikara narama eta aipatutako gin-tonicaren kopatik gina. Eta zer da, bada, gina? Alkohola latz duen edari gogorra da; ia erdia, %40 eta %50 artean du alkohola. Alkohola hori laboreetatik sortzen da: garagarra, garia, zekalea edo oloa ernatu, lehortu eta eho egiten da. Irina beratu eta berotuta aleak zuen fekula azukre sinple, sakarosa, bihurtzen da. Gehitutako legamiak azukre hori alkohol bihurtuko du. Alkohol hori fintzeko destilatu egingo da, hiru aldiz desti-

latu: lehenengoan irinaren muztioa kenduko zaio, beste bietan aho sabaira aparteko dasta emango dioten landareak erantsiko zaizkio.

Ginak derrigor behar duen landare bakarra ipurua da, ipar-ipurua, *Juniperus communis*. Ginean ez bezala, tankerako beste edari batzuk egiteko hego-ipurua, *Juniperus oxycedrus*, ere onartzen da. Ipar-ipuruaren fruitu koxkorak dira ginari bere oinarritzko dasta erantsiko diotenak. Oinarritzkoa diot, gin bakoitza aparteko landare nahasketak osatu eta jantzi egingo baitu. Adibidez inguruan bolada samarrean sumatzen dudun Citadelle gin frantziarrak han eta hemen-

go hemeretzi landare erakusten ditu botilan: Frantziako ipar-ipurua, izaranisa (*Illicium verum*), bioleta zuztarra (*Viola* sp.) eta azitraia (*Satureja* sp.), Espainiako limoi azala (*Citrus limon*) eta arbendola (*Prunus dulcis*), Indiako intxaur muskatua (*Myristica fragans*) eta kardamomoa (*Elettaria cardamomum*), Alemaniako aingeru-belarra (*Angelica archangelica*), Marokoko martorria (*Coriandrum sativum*), Mexikoko laranja azala (*Citrus x sinensis*), Txinako erregaliza (*Glycyrrhiza glabra*), Javako piperbeltza (*Piper cubeba*), Mediterraneo mihilua (*Foeniculum vulgare*), Italiako ostargi-belar horiaren zuztarra (*Iris pseudacorus*), Sri Lankako kanela (*Cinnamomum verum*), Indonxinako kassia (*Cinnamomum aromaticum*), Afrikako melegeta (*Aframomum melegueta*) eta Herbehereetako kumino (*Cuminum cyminum*). Munduak janzten du gin hau!



Tolosako lore eta landare azoka

Ekainak 2, larunbata | Triangulo plazan, Plaza Zaharrean eta Berdura plazan

Azoka egun osoan zehar, produktu askotariko mintegiekin: lore eta landareak, kaktusak, bonsaiak, sendabelarrak, jardineritzako tresnak...



Artisautza azoka, San Frantzisko ibilbidean:

Ekainak 1, ostirala: 17:00-20:30

Ekainak 2, larunbata: 09:30-14:30 / 16:30-20:30

Ekainak 3, igandea: 11:00-14:30